

## AMOREBIETA-ETXANOKO AMETX ERAKUNDE AUTONOMOAREN HEZKUNTZA SAILAREN DIRULAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK.

### 1. ARTIKULUA. Dirulaguntzaren helburua

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzek Amorebieta-Etxanoko udalerrian burututako gizarte-hezkuntzazko jarduera edo jarduera zibikoak diruz laguntzea dute helburutzat.

### 2. ARTIKULUA. Onuradunak

Onuradunak izango dira aurreko atalean azaldutako jarduera sustatzen edo egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak.

Honakoak izan beharko dira:

- Gizarte-hezkuntzazko jarduerak edo jarduera zibikoak burutzen dituzten ikastetxe edo institutuak.
- Irabazteko asmorik gabeko Erakunde edo Elkarteak, legez eratuak, egoitza Amorebieta-Etxanon badute eta jarduerak batik bat Udalerrian egiten badituzte.
- Pertsona fisikoak, noizbehinkako ekimenez talde baten ordezkari partikularrak direnak, irabazteko asmorik gabekoak badira eta Udalerrian errolatuta badaude.

Dirulaguntza arruntaren onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun elkarteak edo bestelako batasun ekonomiko edo ondare banatuak, nortasun juridikoa izan gabe ere, baldin eta helbide soziala Amorebieta-Etxanon badute eta dirulaguntza emateko arrazoia ematen duten proiektu edo jarduerak egiteko gai badira.

Eskatzailea Elkarte edo Fundazio izaera duen entitatea bada, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan eta Amorebieta-Etxanoko Erakundearen Udala Erregistroan erregistratuta egon beharko da.

### 3. ARTIKULUA. Aurrekontu-zuzkidura

Dirulaguntza horietarako, erakundeak dagokion ekitaldirako duen aurrekontuan helburu horretarako aurreikusita dagoen zenbatekoa, deialdian azaltzen dena, erabiliko da.

### 4. ARTIKULUA. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntza hauen deialdia AMETX Zornotzako Kultura eta Euskara zerbitzurako Herri Erakundearen zuzendaritzak egingo du, iragarki bidez. Iragarki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta [www.ametx.net](http://www.ametx.net) web orrian argitaratuko dira, eta Amorebieta-Etxanoko Zelaieta Zentroko Iragarki Oholean erakusgai jarriko.

Eskabideak aurkeztea:

- a) Eskabidea, Erakunde Autonomoaren presidentziari zuzenduta, Zelaieta Zentroko Sarrera-

Erregistroan aurkeztuko da, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako bideetako edozein erabilia, deialdian zehaztuta dagoen epean. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea aurkeztu duenaren NANaren fotokopia.
- Erakundearen IFKren fotokopia, erakunde juridikoa bada.
- Urtean egin beharreko jardueren proiektu xehatua. Proiektu horrek, gutxienez, jarduera horietako bakoitzaren azalpena bildu beharko du, baita zein bizilagun dituen xede, zein helburu lortu nahi den eta kalkulatu den aurrekontua ere.
- Eskabidearen aurreko urtean erakunde eskatzaileak gauzatutako jardueri buruzko memoria. Memoria hori aurreko urtean jasotako urteroko dirulaguntzaren justifikazioan jada aurkeztuta badago, halaxe azaldu beharko da eskabidean.
- Erakundeak duen bazkide-kopuruaren aitortpena.
- Dirulaguntza jasoko duten onuradunen kopuruaren aitortpena.
  
- Zerga-betebeharren ordainketa egunean duela egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Ogasunak egindakoa. Zergak Amorebieta-Etxanoko Udalari soilik ordaindu behar dizkieten elkarteek eskabidean erantsiko dute horixe azaltzen duen berriazko aitortpena. Udalak berak ofizioz emango du aipatutako egiaztagiria.
  
- Eskatzaileak, indarrean dagoen legediaren arabera Gizarte Segurantzarekin behartze-harremana badu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du Gizarte Segurantzarekiko obligazio guztiak egunean dituela.

b) Honekin batera, beste edozein organismo publiko nahiz pribatutan jarduera berbererako dirulaguntzaren eskabidea aurkeztu bada, Ametx Erakunde Autonomoan aurkezten den eskabideari erantsi beharko zaio hori azaltzen duen adierazpena. Bertan adierazi beharko da zein erakundetan aurkeztu den finantzatzeko eskabidea, zenbat diru eskatu den, edo kasuan kasu, zenbat jaso den.

c) Artikulu honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, Ametx Erakunde Autonomoak, kasu zehatz bakoitzari erreparatuz, dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen badu.

d) Eskatutako dokumentuak Erakunde Autonomoak bere esku badauzka, eskatzaileak dokumentuok ez aurkezteko eskubidea erabili ahal izango du, baldin eta aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo egin ziren jarri beharko da.

e) Eskabideak Oinarri hauetan ezarrita dauden betekizun guztiak betetzen ez baditu, eskumena duen organoak akatsa zuzentzeko aginduko dio interesdunari. Horretarako, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezina izango du, eta honako ohar hau egingo zaio: hori egin ezean, eskaera bertan behera utzitzat joko dela, 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusita dagoenaren araberrako ebazpena eman ondoren.

f) Pertsona edo erakunde batek oraindik ere Udalak edo AMETX Erakunde Autonomoak emandako dirulaguntzei buruzko azalpen-memoria aurkeztu ez badu, edo dirulaguntza horiek dokumentu bidez justifikatu ez baditu, beraren eskabidea ez da kontuan hartuko.

g) Eskumena duen organoak dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa hainbanatuko du dirulaguntzen onuradunen artean.

Prozedura izapidetzea:

Instrukzio-organoa Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako AMETX Erakunde Autonomoaren zuzendaritza izango da

Honakoak dira prozedura izapidetzeko jarduerak:

— Ebazteko egokitzat jotzen diren txostenak eskatzea.

— Eskabideak ebaluatzea, baloratzeko irizpide, modu eta lehenetasunen arabera. Horiek guztiak oinarri hauetan daude zehaztuta.

Eskabideak ebaluatu ondoren, espedientea igorriko zaio eskabideoi buruzko txostenak egin behar dituen kide anitzeko organoari. Organo hori Dirulaguntzak Emateko Batzordea izango da, eta kide hauek dira osatuko dutenak:

- Presidentea: Kultura eta Euskara Zerbitzuetarako AMETX Erakunde Autonomoaren presidentea.
- 2 batzordekide: Saileko teknikaria eta kontu-hartzailea edo berak eskuordetzen duen pertsona
- Idazkaria: Saileko laguntzailea edo administraria.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behin-betiko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Interesdunek aurkezten dituzten gertakariak, alegazioak eta frogak besterik ez da aintzat hartuko.

Honako hauek bildu beharko dira behin-betiko ebazpen-proposamenera:

- Dirulaguntza emateko proposatu diren eskatzaileen zerrenda.
- Dirulaguntzaren zenbateko zehatza.
- Ebaluazioaren nahiz berori egiteko irizpideen zehaztapena.

Ebazpena:

Erakunde Autonomoaren presidentek behin-betiko ebazpena ematea erabakiko du. Ebazpena arrazoitu egingo da eta, edonola ere, hartzen den ebazpenaren oinarriak ziurtatu beharko dira.

Ebazpenean azaldu beharko da dirulaguntza jasoko duen eskatzailea, edo jasoko dutenen zerrenda, eta gainontzeko eskabideen gaitzespena ere bai. Ebazteko eta jakinarazteko epea, gehien jota, lau hilabetekoa da, deialdia argitaratzen denean zenbatzen hasita.

Dirulaguntza emateko ebazpenarekin batera amaituko da administrazio bidea.

Gehienezko epea ebazpena jakinarazi gabe amaitzen bada, emakidaren eskabidea administrazio-isiltasunaren bidez gaitzetsizat jo beharko dute interesdunek.

Bizkaiko Aldizkari ofizialean ebazpenaren laburpena argitaratuko da. Bertan adieraziko da non dagoen argitaratuta eduki osoa.

## 5. ARTIKULUA. Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak

ESKATZAILEARI DAGOKIONEZ (40 puntu gehienez).

- a) Proposamena egiten duen pertsonak edo erakundeak Amorebieta-Etxano udalerriaren giroan garrantzia duen edota errotuta dagoen (15 puntu gehienez).
- b) Eskatzaileak egiten duen jarduerak urteetan iraun duen (15 puntu gehienez).
- c) Beste erakundeen finantzazio-bideetara jotzeko eragozpenik duen (5 puntu gehienez).
- d) Eskatzaileak berak baliabide ekonomikorik duen (5 puntu gehienez).

EGITARAUARI DAGOKIONEZ: (60 puntu gehienez).

- a) Jarduera mota, ondorengo lehentasun hurrenkeraren arabera (25 puntu gehienez):
  - Berezia: tokiko berezitasunak (hizkera, toponimia, ...) landuz egiten dena.
  - Teknologia berriak erabiltzen dituen.
  - Umeentzako jarduera.
  - Gazteentzako jarduera.
  - Edonorentzako jarduera.
- b) Jardueraren iraupena eta aldizkakotasuna (10 puntu gehienez).
- c) Proiektua originala eta berritzailea izatea (5 puntu gehienez).
- d) Proiektua bat etortzea Amorebieta-Etxanoko Udalak onetsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburuekin (10 puntu gehienez).
- e) Proiektuak berdintasuna (hizkuntza, arraza, erlijioa edo sexua dela-eta) sustatzea (5 puntu gehienez).
- f) Ingurumenarekiko eta inguruarekiko errespetua (5 puntu gehienez).

Dagokion arloak edo sailak baloratuko du osorik proiektu bakoitza. Hark aholkua eskatu ahal izango die egokitatzat jotzen dituen pertsona edo erakundeei.

## 6. ARTIKULUA. Onuradunen betebeharrak

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

- a) Xedea betetzea, proiektua burutzea, jarduera gauzatzea edo dirulaguntza ematearen oinarri den jokaera izatea.
- b) Erakunde emailearen edo, hala denean, erakunde laguntzailearen aurrean egiaztatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo izateko helburua bete dela ere.
- c) Erakunde emaileak edo, hala denean, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapenen menpe jartzea, baita nazio nahiz erkidego mailako organo eskudunek finantzen egiaztapenerako eta kontrolerako gauzatzen dituzten gainerako jarduketan menpe ere; gainera, jarduketa horietarako eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.
- d) Erakunde emaileari edo erakunde laguntzaileari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak.

e) Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea egiaztatzea, ebazpenerako proposamena eman baino lehen.

f) Kontabilitate liburuak, dilijentzia eginda duten erregistroak eta behar bezala ikuskaturik dauden gainerako agiriak edukitzea, onuradunari egoki dakiokkeen merkataritza eta arlokako legeriaren arabera.

g) Jasotako fondoei eman zaien erabilera egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketak gauzatzeko erabili ahal izateko.

h) Diruz laguntzen diren edozein motatako egitarauen, jardueren, inbertsioen edo jarduketan finantzaketaren gaineko publizitatea egitea jendaurrean.

i) Itzulketa egiteko arazoiren bat gertatzen denean, dirulaguntza itzuli egin beharko da.

## 7. ARTIKULUA. Dirulaguntzaren zenbatekoa

- Eskatutako zenbatekoan ehuneko jakin bat aplikatuz aterako den diru-kopurua izango da dirulaguntza. 5. artikuluan azaldutako irizpideak aintzat hartuz lortutako puntuazioa izango da ehuneko hori.
- Arau orokor gisa, jarduerak diruz laguntzeko zenbateko osoa ez da izango jarduera horietarako aurkeztutako aurrekontu osoaren % 80 baino handiagoa. Hala ere, salbuespen gisa, jardueraren ezaugarriak nahiz pertsona edo erakunde eskatzailearen ibilbidea eta izaera sendoa eta proposatutako jarduerak Amorebieta-Etxano udalerrian nahiz inguruan izango duen oihartzuna kontuan hartuta, baliteke dirulaguntza ehuneko hori baino handiagoa izatea, Dirulaguntzak emateko Batzordeak komenigarritzat jotzen badu.
- Dirulaguntzak beste erakunde publiko nahiz pribatuek xede horretarako ematen dituztenekin bateratu ahal izango dira, baina inola ere ez da egongo behar baino gehiagoko finantziatorik; hau da, beste erakunde batzuen dirulaguntzekin batuta, dirulaguntzak ezin du gainditu jardueraren kostu osoa.
- Dirulaguntzak batzean behar baino gehiagoko finantziazioa gertatuz gero, Ametx Erakunde Autonomoak emandako zenbatekoa itzuli beharko du onuradunak, finantzatutako kopuru osoaren gainean emandako kopuruaren arabera.

## 8. ARTIKULUA. Justifikatzea eta kobratzea

Dirulaguntza eskuratzeko dokumentazio hau aurkeztu beharko zaio Ametx Erakunde Autonomoari:

- Egindako jardueraren memoria.
- Jarduerak eragindako diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Jardueraren ondorioz sortutako gastuen jatorrizko ziurtagiriak, emandako dirulaguntzaren zenbateko osora heldu arte. Ziurtagiri horiek fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan balio duten beste frogagiri baliokideak izango dira.
- Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia dela-eta argitaratzen diren liburuxka, kartel, liburu, bideo, CD etab. etako ale bana aurkeztu beharko da.
- Diruz lagundutako jarduerak Udalaren dirulaguntzez gain, fondo propioen edo bestelako dirulaguntzen edo baliabideen bidez ere finantzatzen direnean, diruz lagundutako jardueretan fondo horien zenbatekoa, jatorria eta erabilera zein izan diren egiaztatu beharko da.
- Amorebieta-Etxanoko Udalari edo bere erakunde autonomoei lagundu beharko die eskatzen dioten guztietan, euskara eta kultura arloei buruzko edozein motatako informazioa emanaz (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.)
- Amorebieta-Etxanoko Udalak edo bere Erakunde Autonomoek egiaztapenerako gauzatzen dituzten jarduketa guztiak egingo ditu.

Frogagiriak diruz lagundutako jarduera burutu eta hurrengo bi hilabeteen barruan aurkeztu beharko dira, baldin eta deialdian beste epe bat ezarri ez bada.

Dirulaguntza aldez aurretik ordainduko da, onuradunak justifikazioa eman baino lehen. Ez da bermerik eskatuko.

## 9. ARTIKULUA. Itzulketa

1.- Ondorengo kasuetan, bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea eta dirulaguntza ordaintzeko egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera bitarteko berandutze-interesak eskatzea, Dirulaguntzen gaineko Lege Orokorraren 38.2 artikuluan zehaztutako zenbatekoan:

a) Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta beste baterako erabiltzen denean.

b) Dirulaguntza lortzeko beharrezko baldintzak bete gabe dirulaguntza eskuratzen denean.

c) Onuradunari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla-eta, araudi honen eta, zehazki 6. artikulua arabera, onuradunak hartutako betebeharrak betetzen ez direnean.

d) Dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu beharra Oinarri hauen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen ez denean. Gastuaren justifikazio partziala egiten bada, justifikatu gabe geratzen den gastuaren zenbatekoa itzuli beharko da.

e) Jardueraren benetako kostuarekin alderatuta gehiegizko finantziazioa egon bada, soberako zenbatekoa itzuli beharko da.

f) Beste erakunde batzuen dirulaguntzekin batzean behar baino gehiagoko finantziazioa gertatuz gero, onuradunak itzuli egin beharko du Erakunde Autonomoak emandako zenbatekoa, finantzatutako kopuru osoaren gainean berak emandako kopuruaren arabera.

g) Dirulaguntza emateko ebazpenean jarduera egiteko edo proiektua burutzeko moduari buruz onuradunei ezarritako baldintza edo betebeharrak betetzen ez direnean. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zein den zehazteko, ez-betetzeen larritasuna hartuko da kontuan, zuzentasun eta proportzionaltasun printzipioei erreparatuta.

2.- Edonola ere, zati batean edo guztiz itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira proportzionaltasun eta berdintasun printzipioak. Horretarako, kasuan kasuko inguruabarrak aztertuko dira.

3.- Dirulaguntza eman duen organo berak emango du itzulketa eskatzeko ebazpena.

4.- Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren

26ko 30/92 Legearen VI. Tituluan ezarritako prozedurazko arauak bete beharko ditu itzulketa-espeditentak. Espediente horren bidez interesdunari entzunaldi-izapidea emango zaio 15 laguneko epean.

5.- Dirulaguntza itzuli beharra dagoela egiaztatuta, organo eskumendunak betebeharrak hori adierazteko ebazpena emango du. Ebazpen arrazoitua izango da, eta beren-beregi adierazi beharko da itzuli beharra sortu duen zioa, bai eta itzuli beharreko zenbatekoa eta dirua borondatez sartzeko epea ere; halaber, aurreikusitako epean itzulketa egin ezean premiamendu-bideari ekingo zaiola ohartaraziko da.

#### **10. ARTIKULUA. Berme-neurriak**

Erakunde emaileak egokitzen jotzen dituen administrazio-kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan adierazita dauden datuak benetakoak diren eta laguntza eskuratzeko eskakizunak betetzen diren egiaztatzeko.

Onuradunak lagundu egin beharko du ikuskapen horretan, eskatzen zaizkion datuak emanez, eta kasuan kasu jarduera horiek egiten diren lekuetara sartzeko utziz.

#### **11. ARTIKULUA. Ebazpena aldatzea**

Dirulaguntza bat emandakoan, erakunde emaileak aldatzea erabaki ahal izango du, interesdunak hala eskatuta, Dirulaguntzak Emateko Batzordeak txostena egin ondoren, baldin eta aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak ez badira onuradunak hala nahi izanda gertatu.

#### **12. ARTIKULUA. Arau-haustea eta zehapenak**

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. Tituluan eta erabilgarria den gainerako legedian ezarritakoa izango da.